

Balio proposamena:

Gure enpresaren helburu nagusia kritikotasuna eta kultura gazteen artean sustatzea da; arteen eta zientzien interesa berpiztearekin batera. Horrez gain, eskaintzen dugun zerbitzua kualitatiboa da, dirua ordaindu behar den arren, bezeroen esperientzien eta hitzaldiak egiten dituzten pertsonen kalitatearen arabera ebaluatuko delako.

Sistema pertsonalizatu baten bidez, hitzaldien gaia eta hitzlariak hautatu daitezke. Horren ondorioz, bezeroen profiei gehien ajustatu egiten diren gaiak aukeratzeko filtroak ezarriko dira.



Gure arrisku ekonomikoak murrizteko, Eusko Jaurlaritzak lagunduko gaitu, diru-laguntzak emanez eta finantzaketa arloan ustelkeria ez egotea ziurtatuz. Diru sarreretan sakonduko dugu gehiago honi buruz.



App bat erabiltzeak edonork gure zerbitzua eskuratzea ahalbidetzen du; gainera, gure proiektuaren nortasunari esker, bideratutako publikoak erreztasuna edukiko du aplikazioaren baliabide guztiak erabiltzeko; gazteak izango direlako nagusiki.

